

JARDUNALDIAK. Gaur amaituko dira Donostian egin diren haurren babesari buruzko europar jardunaldiak

«Kultura berri bat garatu behar da umeen tratu txarrak amaitzeko»

Jorge Barudy psikiatraren arabera, gurasoekin lan egitea «ezinbestekoa» da

Nagore Rodriguez | DONOSTIA

Etorkizunean haurren tratu txarren arazoa amaituko bada, ezinbestekoa da hainbat sektoretako indarrak batzea eta merkatuaren legean oinarritzen ez den kultura bat garatzea, Jorge Barudy psikiatraren arabera. Donostiako Kursoalean atzo eta gaur egiten ari diren umeen babesari buruzko europar jardunaldietan parte hartu zuen atzo Barudyk.

Iritzi publikoari esker eta gizartean tratu txarren gaiak izan duen oihartzunari esker, azkenaldian hainbat urrats egin dira; haatik, oraindik egiteko asko dagoela azpimarratu zuen psikiatrak: «Tratu txarren kasu gehiago atzematen dira azkenaldian. Horrek ez du esan nahi, ordea, tratu txarren kasu gehiago daudenik, baizik eta gehiago eta lehenago atzematen direla».

Tratu txarren arazoan hainbat faktorek eragina dutela azaldu zuen; besteak beste, pobrezia, bazterketa soziala eta merkatuan oinarritzen den legea aipatu zituen. «Kultura materialista horrek aberastasuna du oinarri, eta balio kaltegarriak sortzen ditu herrialde aberatse-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS
Jorge Barudy psikiatra txiletarra, atzo.

tako haurren. Horren ondorioz, hainbat gaixotasun sortzen dira; janariarekin eta baskardadearekin zerikusia dutenak, esaterako». Kultura hori amaitzeko gizarteak lan handia egin beharko duela gaineratu zuen psikiatrak.

Gizarteaz gain, gurasoen ja-

rerrak eragin handia du tratu txarren gain. Ildo horretatik, gurasoekin lan egin beharra azpimarratu zuen. «Gurasoei baliabide terapeutikoak eskaini behar zaizkie, haiek dituzten arazoak konpontzeko eta, era berean, guraso lana ondo betetzen ikas dezaten».

Bestalde, lan handia egiten ari dira egun tratu txarrak jasaten dituzten haurrek etorkizunean jarrera bera izan ez dezaten. Horren harira, gizartearen laguntza beharrezkoa dela eta tratu txarrak amaitzeko planak martxan jarri behar direla dio Barudyk.

PLAN BERRIA

Lau urterako plan bat aurkeztuko du gaur Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2002-2005 urteetarako gizarte babesik gabeko haur eta gazteak zaintzeko plan bat aurkeztuko du gaur. Azken urteetan, Afrikatik iristen ari diren haurrak direla eta, behar berriak daude, eta horregatik, erronka berriak jasotzen ditu planak. «Izan ere, haur horiek dituzten beharrak ez dira hemengo haurrek dituztenak», adierazi zuen EHUko Psikologia Fakultateko dekanoa Joaquín de Paulek. Planaren helburuetako bat baliabideak beharretara egokitzea izango da. Horrekin batera, hainbat sektoreekin elkarlana indartzea izango da planaren beste asmo bat: osasun arloa, hezkuntza... Ildo horretatik, zerbitzu sozialen barruan, haurren sektorea konplexu netakoa dela gaineratu zuen Maximo Goikoetxea Gizartekintzako foru diputatuak. Horregatik, beharrezkotzat jo zuen sektoreen arteko elkarlana. Bestalde, etengabeko hobekuntzaren alde egin nahi du Aldundiak. Izan ere, 1998tik, lehen plana abiatu zenetik, hainbat urrats egin dituzte: «Baina gauza berriak egin behar dira oraindik».

ENERGIA. Enpresaren gaitasun tekniko eta finantzieroa hartu dute kontuan

Jaurlaritzak Eolicas de Euskadiri eman dio Oizko parke eolikoak egiteko baimena

Agentziak | GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko Energiako Zuzendaritzak Eolicas de Euskadi S.A. enpresari eman dio Oizko parke eolikoak egiteko baimena. Lehiaketara beste hiru enpresa hauek ere aurkeztu ziren: Desarrollos Eolicos Dima S.L., EnerTEAM S.A. eta Diyam S.L.

Jakina denez, Eolicas de Euskadi enpresa mistoa da, Iberdrolak eta Euskal Energiaren Enteak osatzen dute alegia, eta azken hori Eusko Jaurlaritzarena da.

Eusko Jaurlaritzak atzo jakinarazi zuenez, aurreproiektua onartuta, Eolicas de Euskadik aurkeztu beharko du instalazio

oinarrizko proiektua. Horrekin batera, proiektuaren ingurumen eraginaren azterketa ere igorri beharko dio Administrazioari, hark informazio publikoan jar dezan eta kaltetutako erakunde eta administrazioei igortzeko nahi dituzten zuzenketak aurkez ditzaten.

Ingurumen Eraginaren Deklarazio positiboa izanez gero, Energiaren Zuzendaritzak ebazpen bat aterako du parke eolikoak egiteko baimena emateko. Hori bera egingo dute EAEko Plan Eolikoan ageri diren proiektu guztiak aurrera eramateko.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak hil honetan bertan esango du zer enpresari emango

dion Elgea-Urkilla parke eolikoaren bigarren fasea egiteko baimena.

Gaitasun tekniko eta finantzieroa

Proiektuak ematerako orduan, enpresek instalazioak eraikitze eta ekoizpen energetikoa eta ingurumenaren zaintza uztartzeko duten gaitasun tekniko eta finantzieroa kontuan izango du Eusko Jaurlaritzak. EAEren plan energetikora egokitze enpresak zer gaitasun duen kontuan hartuko dute, halaber.

Oizen kasuan horiek guztiak kontuan hartu dituzte, eta baita Eolicas de Euskadi enpresak parke eolikoak egiteko duen esperientzia, Eusko Jaurlaritzak berak azaldu duenez.

Orain arte Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian egindako lehen parke eolikoak, Elgeakoa, enpresa horrek berak egin zuen.

Gipuzkoako Ezkontzak 2002

Azaroak
9/10

- 60 erakusle baino gehiago, 30 sektoretik gora ordezkatzeko.
- Emaztegaien, Senargaien eta Barruko Arroparen 4 Desfile Eder.
- Orkestrak, girotzekoak eta DJak, zuzenean.
- Zozketa bikainak.
- Opariak egunero, iristen diren 500 bikoteentzat.

Kursaal
Donostia

SARRERA DOAN

10:00-14:30 • 15:30-21:00

Antolatzailea: BASKONGRESS, S.L. • 943 271 106

Ezkontza Tarten Gipuzkoako
Lehen Txapelketa-Lehiaketa